

# HEZKUNTZAK ELKAR GAITZAN

Mikel UGALDE

*“Bihur dezagun aurrentzean  
eskola euskalduna etxe erdaldunaren,  
erdizka bederen erdaldunaren,  
kontrapisu”  
(Koldo Mitxelena)*

Eskolaren gaia dakargu oriotara ez, sarritan gerta ohi denez, arazo gisa, irabazi beharreko apustu bezala baizik . Ibilaldi bat elkarrekin egitera animatzen zaitut .

Nik neureak azalduko dizkizut eta zure iritzia aintzat hartzen saiatuko natzaizu .

Ibilera honetan gure eskolaren geroa nolakoa izan daitekeen aurrakusten saiatuko gara Xenpelarren “eskola ona eta musika ...” oroitarazten ditugun bitartean . Eskolaren gaiak helduleku asko dituen arren, hemen euskararen ikuspegitik irudikatuko dugu gaur egun osatzen ari garen koadroa . Nora jo behar dugun ikusi, non gauden aztertu eta ibilbidea geroak erakutsiko du .

## ESKOLA ETA EUSKARA


Hamasei urtetarako euskararen eta gaztelaren jabe izango den gaztea prestatu behar ditu eskolak eta Erreteriak .

Eskola bakarrik ez da aski, eta eskolarik gabe ezinezkoa zaigu .

Zure farremurriak utopiaren munduan ote gabiltzan galdetzen dit . Ez da utopia, koerentzia kontua baizik . Gazteak, gaztelarekin ez bait dute arazorik izango, euskara ikastera heldu daitezene lan egin behar da Erreterian ere . Duela hamar urte onartutako Euskararen Legeak horixe besterik ez du agintzen .

“Euskaldun askok erdaraz egiten jarraitzen duen bitartean nola iritsi erdaldunak euskalduntzera?” galdetzen didazu, eta egia da . Ez ditugu gauzak nahastu behar . Eskolak ez du euskaraz egingo dutenik ziurtatzen, baina ikasleak euskalduntzen ahalegin serioa egin dezake, eta egin behar du .

Koerentzia kontua dela esan dugu, izan ere ez dakit honetan sinesten dugun eta erreteriarrok alderdi, sindikatu eta abarretan guzti hau bultzatzeko prest gau-




den . Eta gai honetan bat nator zurekin, herri integratu bat osatzeko ez dago beste biderik .

## ESPERANTZAREN LEIHOA

Bada, bai, baikor izateko motiborik . Istiluak istilu eta eztabaidak eztabaida, gero eta haur gehiago matrikulatzen da euskarazko ikasketak egiteko asmoz . Erreterian guraso gehienek eskola elebiduna nahi dute seme-alabentzat . Hauek honela jarrai dezaten animatzea, eta gainontzekoak irabaztea, da kontua . Hori, bestalde, ez da dekretoz lortzen . Landare berriak bezala, lur egokia eta ongari ugari behar du euskarak indartuko bada . Gizarte osoaren eginkizun da, beraz .

Guzti hau moda hutsa ote denaren beldur zara eta, beharbada, ez duzu arrazoirik falta . Lehenago euskararekiko hotz azaltzen zen zenbait eskola orain euskarazko eskaintza eginez azaltzen da . Zergatik ote da ? .

Ikastolek indarrean jarraitzen dute baina iraun behararen kezka aztoratu eta antzutu ditzake . Erreteria euskalduntzeko eta euskaraz hezitzeko eskola bezala



sortu ziren ikastolak, eta ez dute herriko eskola guztiak euskaldundu beharraren premia ahaztu behar . Euskarak ikastolak eta gainontzeko eskola guztiak behar ditu . Euskararen ildotik elkarlanean arituko diren eskolak.

#### PROPOSAMENA

Ibilaldi labur honen amaieran, nora jo behar den, eta gaur egun non gauden ikusita, honako hau proposatzen dugu, honetan sinesten duenik baldin bada, aintzat har ditzan :

1.- Errenteriako irakaskuntzaren inguruan gai hau aztertu eta akordio zabal batera iristea . Alderdi politikoek, sindikatuek, eskoletako arduradunek, irakasleek eta gurasoek zer esan haundia izango lukete .

2.- Helburua hots, Errenterian irakaskuntza elebiduna hedatu beharraren helburua, ahalik eta adostasunik haundienaz onartuko litzateke . Errenteria herri osoaren apustua izango litzateke .

3.- Horretarako plangintza lantzeari ekin ondoren, bidezkoak diren baliapide, epe, prozedura eta abar erabakitzea .

4.- Herri administrazioak, eta bereziki udalak, akordio honen aldeko azaldu beharko luke guraso berriak erakartzeko ahalegin bereziak eginez .

5.- Irakasle goaren kontuari arreta berezia jarri behar litzaioke . Eskolak, eta eskoletako irakasle asko, urduri daude jaiotzak murriztu direla eta, lana galtzeko beldurrez . Dagonekoz, denboraldirako kontratatuek ez dute beti jarraipenik lortzen.

Arazo larriak sor litezke . Gizarteak ez du behar bezala irakaslearen lana estimatu eta, orain arteko zorrak ordaintzeko besterik ez bada ere, oso kontutan hartzea da irakasleen geroa.

Irakaskuntzaren alde apustua egiten duen gizarteak bere gain hartu behar ditu eskolaren inguruko arazoak eta erantzun bat ematen ahalegindu .

Hauxe da ibileran topatu dugun bidegurutzeta . Herri baten osabiderako erromari eutsi nahi zaion neurrian hezkuntzak elkar

gaitzanezko pausoak eman behar dira . Bestea, bi Errenterien zuloan ezezik, bi Erreterriren amildegian jaustea izango litzateke . Beharbada izango da arrain haundia txikia irentsiko duen esperantza galtzen ez duenik . Ez dut uste hilkanpaia jotzen lanik izango dutenik . Biziaren aldeko apustua bait da gurea .